



aztiker
SOZIOLOGIA IKERGUNEA



ITSASONDOKO
UDALA

ITSASONDOKO HERRITARREN ERREALITATE SOZIOEKONOMIKOA ETA IRITZIAK COVID-19AREN TESTUINGURUAN, 2020

IKERKETA KUANTITATIBOA

AURKIBIDEA

| | |
|---|----------|
| 1. SARRERA | 2 |
| 2. METODOLOGIA OHARRAK | 3 |
| 3. EMAITZAK | 5 |
| 3.1. LAGINAREN ONTASUNA | 5 |
| 3.2. LAGINAREN EZAUGARRIAK | 7 |
| 3.3. INKESTA BETE DUTENEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK | 9 |
| 3.4. ITSASONDOARREN KEZKA NAGUSIAK | 11 |
| 3.5. KORONABIRUSA ETA KONFINAMENDUAREN INGURUKO BIZIPENAK | 14 |
| 3.5.1. KONFINAMENDU GARAIAN IZANDAKO EGOERA | 15 |
| 3.5.2. KONFINAMENDUAREN ONDORENGO EGOERA ETA ZAILTASUNAK | 17 |
| 3.5.3. KORONABIRUSA DELA ETA, UDALAK HARTUTAKO NEURRIEN EZAGUTZA ETA PROPOSAMENAK | 18 |
| 3.6. BIZITZA UNITATEAREN EGOERA EKONOMIKOA | 19 |
| 3.7. EGUNGO ETXEBIZITZAREN EZAUGARRIAK | 22 |
| 3.8. BEREN ETXEBIZITZA ALDATU NAHI DUTENEN EZAUGARRIAK | 25 |
| 3.9. BAKARRIK BIZI DIRENEN EGOERA SOZIO-AFEKTIBO-EKONOMIKOA | 28 |
| 3.9.1. EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK | 29 |
| 3.9.2. SOZIALIZAZIOA ETA HARREMANAK BESTE PERTSONEKIN | 31 |
| 3.9.3. EGOERA EKONOMIKOA | 33 |
| 3.9.4. EGOERA FISIKOA | 34 |
| 3.10. 18 ETA 35 URTE ARTEKO GAZTEEN INGURUKO ATALA | 35 |
| 3.11. UDALAREN ZERBITZUAK: EZAUGUTZA, ERABILERA ETA BALORAZIOA | 36 |
| 3.11.1. UDALAREN HAINBAT ZERBITZUREN EZAGUTZA | 37 |
| 3.11.2. UDALAREN ZERBITZU HORIEK ERABILTZERAKOAN DAUDEN ARAZOAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK | 38 |
| 3.12. HERRITARREN PARTE HARTZEA: UDAL BATZORDEAK ETA HERRIKO EKIMENKA | 39 |
| 3.12.1. UDAL BATZORDEEN EZAGUTZA, PARTE HARTZEA ETA BALORAZIOA | 40 |
| 3.12.2. HERRIKO EKIMENEN EZAGUTZA ETA PARTE HARTZEA | 41 |

1. SARRERA

Dokumentu honetan jasotzen dira Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan ikerketaren emaitzak. Azterketa hori Aztiker Soziologia Ikerguneak egin du Itsasondoko Udalaren eskariz, 2020ko udazkenean.

Segidan jasotzen den txostenean ikerketaren oinarri izan den inkestaren emaitzak jasotzen dira. Honako egiturari jarraitzen dio txostenak:

- Lehenengo, ikerketa aurrera eramateko erabilitako metodologiaren inguruko zehaztapenak ematen dira.
- Segidan, inkestak izan dituen emaitzak azaltzen dira. Honako edukiak jasotzen dira emaitzen baitan:
 - Inkesta erantzun duten pertsonen ezaugarri soziodemografikoak.
 - Itsasondoarren kezka nagusien atala.
 - COVID-19aren testuinguruaren kudeaketari buruzko atala: herritarrek nola igaro duten konfinamendua eta udalak hartutako neurrien ezagutza.
 - Bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoari buruzko atala.
 - Egungo etxebizitzaren ezaugarriak eta etxebizitza aldatu nahi dutenen arazoak.
 - Bakarrik bizi diren herritarren egoera sozio-afektibo-ekonomikoari buruzko atala.
 - 18 eta 35 urte bitarteko itsasondoarren etxebizitza premia.
 - Itsasondoko herriarekiko harremana: zerbitzuen ezagutza, erabilera eta balorazioa, eta herriko parte-hartze kanal eta ekimenetako inplikazioa.

Balio dezala ikerketa honek Itsasondoko herritarren errealitatea hobeto ezagutzeko eta udal politikak egungo biztanleen errealitateari egokitzeko argibideak eskaintzeko.

2. METODOLOGIA OHARRAK

Itsasondoko herritarren egoera eta beharren inguruko ikerketa hau 2020ko udazkenean egin da, inkesta batean oinarrituta. Inkestako edukiak 2020ko uztailan adostu dira udal ordezkariekin, eta ondoren landa lana 2020ko irailaren 7a eta 25a bitartean egin da, online. Atal honetan, inkesta hori egiteko jarraitutako metodologiaren inguruko xehetasunak ematen dira.

Itsasondon 2019an 658 biztanle zeuden erroldatuta (INE, 2019). Unibertsoa hain txikia izanik, ezinezkoa da laginketa baten bidez ordezkagarritasunaz hitz egitea. Horregatik, unibertso osoa kontuan hartuta lan egin da inkesta honetan. Inkestatuengana iristeko, ikerketa unitate moduan bizikidetzta-unitatea hartu da kontuan. Hau da, helburua izan da inkesta bat jasotzea etxebizitza unitate bakoitzeko.

Landa lana egiteko, CATI, CAWI eta CAPI (*Computer Assisted Telephone Interview*, *Computer Assisted Web Interview* eta *Computer Assisted Personal Interview*) teknikak uztartu dira protokolo bati jarraituz. Inkesta Aztikerrek garatutako ZOOM plataforma online propioan diseinatu da eta bere bidez jaso dira datuak.

Udalerrian guztira 257 etxebizitza unitate daude. Haietara iritsi eta inkesta betetzeko eskaera egiteko, Udalak etxebizitza bakoitzaren inguruan dituen datuak erabili dira. Honakoa izan da jarraitu den prozedura:

- Udalak gutun bat helarazi du herriko etxebizitza guztietara ikerketaren helburuez informatuz eta inkestara online sartzeko interneteko lotura bat emanez. Gonbidapena jaso den unetik bertatik, herritarrek aukera izan dute inkestara sartu eta erantzuteko.
- Segidan, Aztikerreko langileek telefono deiak egin dizkiete Itsasondoko herritarrei, ikerketaren berri emanez eta gutuna jaso duten ziurtatuz. Online betetzeko aukerarik ez zegoen kasuetan, inkesta telefonoz betetzeko aukera eskaini zaie.
- Telefonoz kontaktatzea lortu ez den herritarren kasuan, Aztikerreko langileak Itsasondora gerturatu dira eta aurrez aurreko harremana egin dute etxebizitza horietako kideekin.

Landa lan honek guztira hiru aste iraun du. Guztira, 228 etxebizitzekin egin da harremana, 7 etxebizitza hutsik zeudela jakin da eta 22 etxeetako bizilagunekin ez da lortu kontaktua egiterik. Guztira 151 etxebizitzetako baliozko inkestak lortu dira (%58,8). Honela banatu da etxebizitzen kasuistika:

Landa lanaren laburpena

| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
|---|------------|--------------|
| Inkesta bete dute | 151 | 58,8 |
| Inkesta bete nahi ez dutela esan dute | 26 | 10,1 |
| Telefonoz edo presentzialki kontaktatu bai, baina azkenean ez dute inkesta bete | 47 | 18,3 |
| Ez dute inkesta bete ez direlako gai edo gaixotasunen bat dutelako | 4 | 1,6 |
| Etxebizitza hutsik dago | 7 | 2,7 |
| Ez da kontaktatzea lortu | 22 | 8,6 |
| Etxebizitzak guztira | 257 | 100,0 |

3. EMAITZAK

3.1. LAGINAREN ONTASUNA

Laginaren ontasunak konparatzen ditu Itsasondoko herritarren ezaugarri errealak, batetik, eta Aztikerrek ikerketa honetarako erabili duen laginaren ezaugarriak, bestetik. Hartutako lagina unibertsoaren ahalik eta antzekoena izatea da helburu nagusia, emaitza ahalik eta errealean izateari begira.


Hala, inkesta bete duten etxeetan zein jende mota bizi den ikusita, helburu hori ondo betetzen dela antzeman daiteke. Bai sexuaren eta baita adin tarteen arabera, ikerketako emaitzetarako erabiliko dugun herritar multzoa Itsasondoko herritar guztien antzera banatzen da.

Euskara gaitasunari dagokionez ere, Eustatek 2016an argitaratutako datuen antzerako banaketa ikusten da Aztikerren laginean, hau da, herritarren hiru laurden baino gehiago dira elebidunak (%77,1 Aztikerren laginean eta %76,8 Eustaten datu ofizialetan) eta erdaldun elebakarrak %15 inguru dira bi kasuetan.

Zenbat pertsona bizi dira inkestatuko etxeetan, sexuaren arabera

| | Lagina | | Unibertsoa | |
|-------------|------------|---------------|------------|---------------|
| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
| Emakumezkoa | 204 | 49,6 | 315 | 47,9 |
| Gizonezkoa | 207 | 50,4 | 343 | 52,1 |
| Guztira | 411 | 100,0 | 658 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Zenbat pertsona bizi dira inkestatuko etxeetan, adin tartearen arabera


| | Lagina | | Unibertsoa | |
|------------|------------|---------------|------------|---------------|
| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
| 0-17 urte | 89 | 21,7 | 139 | 21,1 |
| 18-34 urte | 64 | 15,6 | 109 | 16,6 |
| 35-49 urte | 107 | 26,0 | 169 | 25,7 |
| 50-64 urte | 82 | 20,0 | 127 | 19,3 |
| 65+ urte | 69 | 16,8 | 114 | 17,3 |
| Guztira | 411 | 100,0 | 658 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020

**Zenbat pertsona bizi dira inkestatuko etxeetan, euskara gaitasunaren arabera**

| | Lagina | | Unibertsoa | |
|-------------------------------------|------------|---------------|------------|---------------|
| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
| Euskaraz ulertu eta hitz egiten dut | 317 | 77,1 | 487 | 76,8 |
| Euskara ulertu bai, hitz egin ez | 36 | 8,8 | 52 | 8,2 |
| Ez dut euskara ulertzen | 58 | 14,1 | 95 | 15,0 |
| Guztira | 411 | 100,0 | 634 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



3.2. LAGINAREN EZAUGARRIAK

Inkesta bete duten 'familien' gehiengoak, hamarretik zazpik, Itsasondoko herrigunean edo Kaxkoan bizi direla adierazi du. Inkestatuen beste %10,6 San Juan auzoan bizi da eta gainerako ia %20k beste zonalde txikiago bat esan du, horietatik askok Urkia.

Inkesta bete dutenen %17,2 bakarrik bizi da bere etxean, hala ere, inkestatuen erdia bi edo hiru kideko etxeetan bizi da (%50,3) eta beste laurden bat lau kideko etxebizitzetan (%26,5). Bukatzeko, bost edo sei kideko etxeek inkestatuen %6,0 osatzen dute. Gauzak horrela, inkesta bete duten itsasondoarren etxeetan 2,8 kide bizi dira.


Etxekideen jatorriari dagokionez, galdetegia bete duten hiru laurdenen etxeetan (%74,8) kide guztiak Euskal Herrian jaiotakoak dira, horietako gehienak Itsasondon bertan. Gainontzeko etxeetan Euskal Herritik kanpo jaiotako kideak bizi dira (kide guztiak edo gutxienez bat).

Bukatzeko, hizkuntzari dagokionez, inkesta euskaraz bete du herritarren hamarretik zazpik baino gehiagok (%72,8) eta gaztelaniaz %22,5ek. Inkesta bi hizkuntzetan bete duenik ere badago, batean hasi eta bestean bukatu duena (%4,6). Etxekideen euskara gaitasuna, aldiz, ez da inkesta bete dutenena bezain bestekoa, izan ere, etxeko kide guztiak euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten dutenak etxeen %60,3 dira. Gainerako etxeetan (%39,7) badago pertsonaren bat (edo guztiak) euskara menperatzen ez duena.

Inkestatua bizi den auzoa

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---------------------|------------|---------------|
| Kaxkoa - Herrigunea | 105 | 69,5 |
| San Juan | 16 | 10,6 |
| Beste bat | 30 | 19,9 |
| Guztira | 151 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Zenbat kide diren etxean

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|------------------|------------|---------------|
| Pertsona bakarra | 26 | 17,2 |
| 2 pertsona | 47 | 31,1 |
| 3 pertsona | 29 | 19,2 |
| 4 pertsona | 40 | 26,5 |
| 5 edo 6 pertsona | 9 | 6,0 |
| Guztira | 151 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020




Etxeko kideen jatorria

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|--|------------|---------------|
| Etxeko kide guztiak Euskal Herrian jaio dira | 113 | 74,8 |
| Etxeko kideren bat edo guztiak Euskal Herritik kanpo jaio dira | 38 | 25,2 |
| Guztira | 151 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020

Etxeko kideren bat edo guztiak Euskal Herritik kanpo jaio dira; %25,2




Etxeko kide guztiak Euskal Herrian jaio dira; %74,8

Inkesta zein hizkuntzetan bete duten

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|--|------------|---------------|
| Euskaraz | 110 | 72,8 |
| Gaztelaniaz | 34 | 22,5 |
| Bi hizkuntzetan (batean hasi eta bestean bukatu) | 7 | 4,6 |
| Guztira | 151 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020

Bi hizkuntzetan (batean hasi eta bestean bukatu); %4,6




Euskaraz; %72,9

Gaztelaniaz; %22,5

Etxeko kideen euskara gaitasuna

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|------------|---------------|
| Etxeko kide guztiak badakite euskaraz | 91 | 60,3 |
| Etxeko kideren batek edo guztiak ez dakite euskaraz | 60 | 39,7 |
| Guztira | 151 | 100,0 |

Etxeko kideren batek edo guztiak ez dakite euskaraz; %39,7



Etxeko kide guztiak badakite euskaraz; %60,3

3.3. INKESTA BETE DUTENEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Etxebizitza bakoitzeko pertsona bakarrak erantzun du inkesta, hau da, 151 erantzun jaso dira, beste horrenbeste etxebizitzetan. Inkesta bete duten herritarren gehiengoa emakumea izan da (%57,3) eta adin-tarteari dagokionez, hirutik bik (%67,6) 35 eta 64 urte artean ditu. Profil honetako herritarrak izan dira batez ere galdetegia betetzea beren gain hartu dutenak.


Jaiolekuari dagokionean, galdetegia bete dutenen hamarretik zortzi baino gehiago (%83,4) Euskal Herrian jaiotakoa da, horien barruan %36 Itsasondon bertan jaiotakoa. Lan egoerari dagokionez, inkestatuen ia hamarretik sei (%59,6) enplegatua dago, laurdena (%24,5) jubilatua da eta %6,0 langabezia egoeran dago.

Bukatzeko, euskara ondo ulertu eta hitz egiten du inkesta bete duten herritarren hiru laurdenak (%74,2), ulertu bai baina ez du hitz egiten hamarretik batek (%9,9) eta ez du euskara ulertzen %15,9k.

Inkestatuaren generoa

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|-------------|------------|---------------|
| Emakumea | 86 | 57,3 |
| Gizona | 63 | 42,0 |
| Ez binarioa | 1 | 0,7 |
| Guztira | 150 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Inkestatuaren adina

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|-------------------|------------|---------------|
| 18-34 urte artean | 15 | 9,9 |
| 35-49 urte artean | 61 | 40,4 |
| 50-64 urte artean | 41 | 27,2 |
| 65 urtetik gora | 34 | 22,5 |
| Guztira | 151 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Inkestatuaren jatorria


| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|----------------------------------|------------|---------------|
| Itsasondo | 55 | 36,4 |
| Gipuzkoako beste lekuren bat | 67 | 44,4 |
| Euskal Herriko beste lekuren bat | 4 | 2,6 |
| Espainiako Estatua | 12 | 7,9 |
| Estatutik kanpoko herrialdeak | 13 | 8,6 |
| Guztira | 151 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020

**Inkestatuaren lan egoera**


| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|------------------------------------|------------|---------------|
| Lan ordainduan (jardun osoan) | 70 | 46,4 |
| Lan ordainduan (jardun murriztuan) | 20 | 13,2 |
| Langabezian | 9 | 6,0 |
| Norbere etxeko langilea | 8 | 5,3 |
| Ikaslea | 3 | 2,0 |
| Ikasi + lana | 2 | 1,3 |
| Jubilatu / pentsionista | 37 | 24,5 |
| Beste bat | 2 | 1,3 |
| Guztira | 151 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020

**Euskara gaitasuna:**

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|-------------------------------------|------------|---------------|
| Euskaraz ulertu eta hitz egiten dut | 112 | 74,2 |
| Euskara ulertu bai, hitz egin ez | 15 | 9,9 |
| Ez dut euskara ulertzen | 24 | 15,9 |
| Guztira | 151 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



3.4. ITSASONDOARREN KEZKA NAGUSIAK

151 inkestaturen artean 100ek erantzun du Itsasondok duen arazorik handiena zein den galdetutakoan (beste 12 herritarrek modu esplizituan esan dute Itsasondok ez duela arazo berezirik).

Erantzunen artean aniztasun handia antzematen da, hau da, ez da bereziki nabarmendu arazo konkreturen bat. Gehien aipatu diren hiru arazoak, aipamen kopuru berdinarekin, honakoak izan dira: errepidea udalerrri erditik pasatzerakoan, auto eta bizikletak abiadura azkarrean pasatzen direla (8 aipamen); aparkaleku falta (8); eta atez-ateko hondakin bilketa sistema (8).


Ondoren, seina aipamenekin, honakoak azpimarratu dituzte herritarrek: irisgarritasun arazoak bereziki auzo batzuetara joateko; udalerrriak bizitza soziala falta duela, bereziki gazteak inguruko udalerrietara joaten direlako (ikasketengatik, aisialdiagatik...); kaleak, bideak, parkeak eta abar ez daudela egoera onean; eta bukatzeko, udal azpiegitura falta.

Norberaren kezka nagusiak zein diren galdetutakoan, erantzun kopurua antzekoa izan da. Kezkak, aldiz, oso desberdinak izan dira. Berezi hiru gai aipatu dira: lana eta langabeziari lotutako kezkak (15 aipamen); osasuna orokorrean (12) eta koronabirusari loturiko kezkak (10).

Itsasondoko arazo nagusiena zein den

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|------------|---------------|
| Errepidea herri erditik pasatzen denez, auto eta bizikleten trafiko handia, azkarregi pasatzen dira | 8 | 7,1 |
| Aparkaleku falta | 8 | 7,1 |
| Atez ateko hondakin bilketa | 8 | 7,1 |
| Herri aldapatsua, irisgarritasun arazoak bereziki auzo batzuetara joateko | 6 | 5,4 |
| Herri bizi falta dela, gazteak inguruko herrietara joaten direla ikastera, aisialdira, bizitzera... | 6 | 5,4 |
| Udalerrria ez dago txukun (kaleak, bideak, parkeak...), mantenimendu falta | 6 | 5,4 |
| Zerbitzu falta orokorrean (udal azpiegiturak, garraio publikoa...) | 6 | 5,4 |
| Auzoen zaintza handiagoa, bideak konpondu beharra | 5 | 4,5 |
| Etxebizitza aukera falta | 5 | 4,5 |
| Egoera sozioekonomiko orokorra | 3 | 2,7 |
| Komertzio falta; harategia, arraindegia | 3 | 2,7 |
| N1 errepidearen eta trenbidearen ondoan kokatuta egotea, zarata | 3 | 2,7 |
| Politika gehiegi, herritarrak banatzen ditu | 3 | 2,7 |
| Udalak komunikazioa euskara hutsean egiten duela | 3 | 2,7 |
| Adineko herritarrentzat igogailua falta etxebizitza askotan | 2 | 1,8 |
| Etorkin asko daude | 2 | 1,8 |
| Herritarren parte hartze txikia antolatzen diren gauzetan | 2 | 1,8 |
| Ikastola zaharkituta dago | 2 | 1,8 |
| Kirol azpiegitura falta | 2 | 1,8 |
| Zuntz optikoa falta | 2 | 1,8 |
| Beste | 15 | 13,4 |
| Itsasondok ez du arazo handirik | 12 | 10,7 |
| Guztira | 112 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Norberaren arazo nagusia zein den

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|--|------------|---------------|
| Lana, lan baldintzak, langabezia | 15 | 12,5 |
| Osasuna | 12 | 10,0 |
| Koronabirusa | 10 | 8,3 |
| Atez ateko hondakin bilketa | 6 | 5,0 |
| Etxebizitzan mugikortasun arazoak, igogailu falta | 6 | 5,0 |
| Etxebizitza aukera falta | 5 | 4,2 |
| Lana eta zaintza kontziliatzea | 5 | 4,2 |
| Auzoen zaintza handiagoa, bideak konpondu beharra | 4 | 3,3 |
| Herri bizitza falta dela, gazteak inguruko herrietara joaten direla ikastera, aisialdira, bizitzera... | 4 | 3,3 |
| Udalerrria ez dago txukun (kaleak, bideak, parkeak...), mantenimentu falta | 4 | 3,3 |
| Haur parkearen berrikuntza | 3 | 2,5 |
| Zerbitzu falta orokorrean (udal azpiegiturak, garraio publikoa...) | 3 | 2,5 |
| Aparkaleku falta | 2 | 1,7 |
| Eskola proiektua | 2 | 1,7 |
| Zarata akustikoa (N1, trenbidea, kamioiak...) | 2 | 1,7 |
| Beste | 14 | 11,7 |
| Ez dugu arazo berezirik | 23 | 19,2 |
| Guztira | 120 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



3.5. KORONABIRUSA ETA KONFINAMENDUAREN INGURUKO BIZIPENAK

Martxoan hasitako konfinamendu garaia etxean nola bizi izan duten galdetu zaie inkestatuei. Zehazki, hiru aspektu ezberdinen arabera jakin nahi izan da: arlo afektibo/emozionala, arlo ekonomikoa eta arlo fisikoa.

Arlo emozionalari dagokionez, inkestatuen hamarretik zortzi baino gehiagok (%82,4) etxean oso ondo edo nahiko ondo moldatu direla adierazi du eta gainerako %17,6k nahiko edo oso gaizki. Bestetik, arlo ekonomikoan oso ondo edo nahiko ondo moldatu dira %85,3 eta nahiko edo oso gaizki %14,7. Eta bukatzeko, arlo fisikoari dagokionean, besteetan baino gutxiago izan dira oso ondo edo nahiko ondo moldatu direnak (%72,8) eta herritarren laurdenak baino gehiagok (%27,2) adierazi du nahiko edo oso gaizki pasa dutela. Aldagai ezberdinekin gurutzatu ezker, argi ikus daiteke konfinamendu garaia arlo emozionalean okerren pasa dutenak bakarrik bizi direnak eta etorkinak izan direla (bi multzo hauetan %30ek gaizki pasa duela adierazi du). Arlo ekonomikoan, ostera, hilabete bukaerara zailtasunekin iristen diren familiek pasa dute egoera latzena, ia hamarretik lauk (%38,7) gaizki edo oso gaizki pasa omen du konfinamendu garaia.

Konfinamendu garaian teknologia aldetik arazorik izan duten galdetuta, gehiengo handi batek ez duela arazo berezirik izan azpimarratu du (%86,8). Aldiz, Itsasondoko etxebizitzan ia hamarretik batek (%8,6) haur edota nerabeen eskolak jarraitzeko arazoak izan dituzte, %5,3k telelana egiteko arazoak izan ditu eta beste %3,3 batek senide eta lagunekin harremanak mantentzeko.

Arazo teknologiko hauek arrazoi ezberdinengatik izan direla aipatzekoa da. Gehiengoak ordenagailu falta (batzuetan gailu bat izatea ez baitzen nahikoa) edo internetera konexio eskasa edo zuntz optiko falta aipatu du (%55 inguru guztira). Hala ere, badira arrazoi sozioekonomikoak aipatu dituztenak (%22,2) edota teknologiaren inguruko ezagutza falta adierazi dutenak (%16,7).

Etxeko konfinamendua amaitu ondoren, ikastetxeak online funtzionatzen egonda eta herritar askok lanera buelta presentziala eginda, zaintza eta kontziliaziorako zailtasunik izan duten ere galdetu zaie itsasondorrei. 'Familien' hamarretik batek (%10,0) zailtasunak izan dituela erantzun du eta ehuneko hori bikoitza izan da guraso bakarreko etxeetan. Zailtasunak izan dituzten etxeetan, zaintza lan horiek normalean (%40) haurren gurasoek egin dituzte, beste kasuen %21ean aitona-amonek, eta %30ean beste senideren batek. Soilik %4,3k kontratatu behar izan du lan hauek aurrera eramateko pertsona bat.


Bukatzeko, Itsasondoko Udalak koronabirusa dela eta hartutako hainbat neurri aipatu zaizkie inkestatuei, ea neurri hauek ezagutzen dituzten jakiteko. Herritarrek gehien ezagutzen duten neurria 'Etxez etxeko zerbitzua, elikagaiak eta botikak banatzeko' izan da (%78,1) eta ondoren daude 'Familia zaurgarrienei / beharra zutenei jana banatzea' (%62,9), 'Liburuak maileguan etxetik etxe eramateko zerbitzua' (%44,4), 'Koronabirusak eragindako arazoak artatzeko edo arreta emateko telefono bidezko zerbitzua, goizez zein arratsalde' (%40,4) eta 'COVID-19an positibo emandako herritarrentzako zaborren zuzeneko kudeaketa' (%39,1). Azpimarragarria da, Udalak martxan jarritako neurri hauek ezagutza maila ezberdina izan dutela herritarren artean. Orokorrean ezagutza maila baxuagoa izan da Euskal Herritik kanpo jaiotako herritarren artean edota zailtasun ekonomikoak pairatzen dituzten etxeetan.

3.5.1. KONFINAMENDU GARAIAN IZANDAKO EGOERA

Arlo afektibo / emozionala (bakardadea, etxekideekin harreman, ingurukoekin kontaktua...)

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---------------|------------|---------------|
| Oso ondo | 29 | 19,6 |
| Nahiko ondo | 93 | 62,8 |
| Nahiko gaizki | 17 | 11,5 |
| Oso gaizki | 9 | 6,1 |
| Guztira | 148 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Arlo ekonomikoa (etxeko ekonomia, lana...)

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---------------|------------|---------------|
| Oso ondo | 16 | 11,2 |
| Nahiko ondo | 106 | 74,1 |
| Nahiko gaizki | 14 | 9,8 |
| Oso gaizki | 7 | 4,9 |
| Guztira | 143 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Arlo fisikoa (egoera fisikoa, sedentarismoa...)

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---------------|------------|---------------|
| Oso ondo | 20 | 13,6 |
| Nahiko ondo | 87 | 59,2 |
| Nahiko gaizki | 33 | 22,4 |
| Oso gaizki | 7 | 4,8 |
| Guztira | 147 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Konfinamendu garaian teknologia aldetik izandako arazoak (Erantzun anitzeko galdera)

| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
|---|------------|--------------|
| Ez dugu arazorik izan | 131 | 86,8 |
| Haur edo gaztetxoek eskolak jarraitzeko | 13 | 8,6 |
| Lanean jarraitzeko (telelana) | 8 | 5,3 |
| Senide edo lagunekin harremantzeko | 5 | 3,3 |
| Beste bat | 1 | 0,7 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Arazo teknologikoen arazoia

| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
|--|------------|--------------|
| Zuntz optiko falta | 5 | 27,8 |
| Arrazoi ekonomikoak | 4 | 22,2 |
| Ezagutza teknologikoen falta | 3 | 16,7 |
| Etxean ez dute internetik | 2 | 11,1 |
| Ordenagailu falta lana eta ikasketak etxetik egiteko | 2 | 11,1 |
| Mugikorreko internetak ez zuen beti ondo funtzionatzen | 1 | 5,6 |
| Ordenagailu falta | 1 | 5,6 |
| Guztira | 18 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



3.5.2. KONFINAMENDUAREN ONDORENGO EGOERA ETA ZAILTASUNAK

Konfinamendua amaitzean, herritar askok lanera itzuli behar izan du eta horrek zaintzarako eta kontziliaziorako arazoak sortu ditu kasu batzuetan. Zuen etxean izan al duzue horrelako arazorik?

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|------------------|------------|---------------|
| Bai, izan dugu | 15 | 10,0 |
| Ez, ez dugu izan | 135 | 90,0 |
| Guztira | 150 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



(Arazoren bat izan duela esan dutenei) Noren laguntzaz baliatu zarete zaintza/kontziliazio lanetarako?

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|-----------------------------|------------|---------------|
| Haurren gurasoak | 19 | 40,4 |
| Beste senideren bat | 14 | 29,8 |
| Haurren aitona-amonak | 10 | 21,3 |
| Lagunak | 2 | 4,3 |
| Kontratatutako pertsona bat | 2 | 4,3 |
| Guztira | 47 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020




3.5.3. KORONABIRUSA DELA ETA, UDALAK HARTUTAKO NEURRIEN EZAGUTZA ETA PROPOSAMENAK

Itsasondoko Udalak Covid-19ak eragindako konfinamenduan hartutako neurrien ezagutza

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|------------|---------------|
| Etkez etxeko zerbitzua, elikagaiak eta botikak banatzeko | 118 | 78,1 |
| Familia zaugarrienei / beharra zutenei jana banatzea | 95 | 62,9 |
| Liburuak maileguan etxeko etxe eramateko zerbitzua | 67 | 44,4 |
| Koronabirusak eragindako arazoak artatzeko edo arreta emateko telefono bidezko zerbitzua, goizez zein arratsaldez | 61 | 40,4 |
| COVID-19an positibo emandako herritarrentzako zaborren zuzeneko kudeaketa | 59 | 39,1 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



3.6. BIZITZA UNITATEAREN EGOERA EKONOMIKOA

Etxekideek osatzen duten bizitza unitatearen egoera ekonomikoa nolakoa den ere jakin nahi izan da ikerketa honetan. Hasteko, egoera ekonomiko subjektiboari dagokionez (norberak nola ikusten duen bizitza unitatearen egoera), hamarretik zortzik (%79,3) egoera oso ona edo ona dutela adierazi du. Bestetik, %10,6k etxean egoera ekonomiko txarra edo oso txarra dutela esan du eta gainerako %10,0ak ez dio galderari erantzunik eman nahi izan. Hurrengo galdera, hilabete bukaerara nola iristen diren galdetuta, %68,0k oso erraz edo nahiko erraz adierazi du eta %20,7k nahiko zailtasunekin edo zailtasun handiekin.


Bi galdera hauek aldagai ezberdinen arabera gurutzatuta, azpimarra daiteke egoera ekonomiko zailenean daudenak bakarrik bizi diren pertsonak (kasu gehienetan adineko herritarrak dira), guraso bakarreko familiak eta etorkinak direla. Datu adierazgarri bat ematearren, azken urtebetean itsasondoarren %11,9k arrazoi ekonomikoak medio noizbait edo askotan ez du kalefazioa edo argindarra erabili. Zailtasun ekonomikoak dituztela esan duten etxeetan laukoiztu egiten da ehuneko hori %40,0ra iritsiz.

Etorkizunera begira, laguntza ekonomiko behar izanez gero, itsasondoarren %70,6k erantzun du ekonomikoki lagunduko lukeen norbait izango lukeela inguruan eta beste %11,3 esan du ez lukeela izango inor laguntzeko. Eta bukatzeko, egoera ekonomikoak laguntza eskatzera behartuz gero, Udalaren Gizarte Zerbitzuetara gerturatu daitekeela badaki herritarren hiru laurdenak (%76,0), zerbitzu horren berri ez du beste %21,4k eta ez luke zerbitzu hori inoiz erabiliko gainerako %2,7k.

Nola definituko zenuke zure familiaren / etxekideen egoera ekonomikoa?

| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
|------------|------------|--------------|
| Oso ona | 9 | 6,0 |
| Ona | 110 | 73,3 |
| Txarra | 14 | 9,3 |
| Oso txarra | 2 | 1,3 |
| ED / EE | 15 | 10,0 |
| Guztira | 150 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Kontuan hartuta etxean bizi zareten kide guztien diru-sarrerak, hilabete bukaerara nola iristen zaretela esango zenuke?

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|----------------------|------------|---------------|
| Oso erraz | 12 | 8,0 |
| Nahiko erraz | 90 | 60,0 |
| Nahiko zailtasunekin | 25 | 16,7 |
| Zailtasun askorekin | 6 | 4,0 |
| ED / EE | 17 | 11,3 |
| Guztira | 150 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Arrazoi ekonomikoengatik kalefazioa edo argindarra erabili gabe geratu izan zara azken urtebetean?

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|------------------------------|------------|---------------|
| Bai, askotan | 9 | 6,3 |
| Behin edo behin gertatu zait | 8 | 5,6 |
| Inoiz ez | 127 | 88,2 |
| Guztira | 144 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Etorkizunean, zure egoera ekonomikoak behartuko bazintu norbaiti laguntza eskatzera...

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|--|------------|---------------|
| Badut nork lagunduko nauen beti | 65 | 43,3 |
| Denboraldi batez lagunduko nauen norbait badut | 21 | 14,0 |
| Tarteka lagunduko nauen norbait badut | 20 | 13,3 |
| Ez dut inor lagundu ahal nauenik | 17 | 11,3 |
| ED / EE | 27 | 18,0 |
| Guztira | 150 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Gaur egun edota etorkizunean, zure egoera ekonomikoak behartuko bazintu laguntza eskatzera, badakizu Udalera/Gizarte Zerbitzuetara jo dezakezula?

| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
|---------------------------------|------------|--------------|
| Bai | 114 | 76,0 |
| Bai, baina ez nuke inoiz egingo | 4 | 2,7 |
| Ez | 22 | 14,7 |
| ED / EE | 10 | 6,7 |
| Guztira | 150 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritzia COVID-19aren testuinguruan, 2020



3.7. EGUNGO ETXEBIZITZAREN EZAUGARRIAK

Gaur egun bizi diren etxebizitzaren inguruan galdetu zaie Itsasondoko 'familiei'. Herritarren ia %100 bizi da 50 metro karratu baino gehiagoko etxebizitza batean eta horietatik gehiengoa (%67,3) 75 metro karratu baino gehiagoko etxebizitza batean bizi da.

Etxean edota etxekideen artean dituzten azpiegituri dagokionez, gehien aipatu direnak sukaldea eta telefono mugikorra izan dira (etxeen %99an dituzte bi hauek). Ondoren aurkitzen dira balkoia edo terraza, auto propioa edota internetera konexioa (hurrenez hurren %92, %89 eta %76). Bestetik, etxean falta duten azpiegituren artean (azpiegitura edo gailu hori ez dutelako eta beharra sentitzen dutelako) gehien aipatu dena zalantzarik gabe igogailua izan da. Etxeen %22,2k azpiegitura hau falta duela adierazi du, hau da, ia lau etxebizitzatik batek. Zerrenda honetan daude jarraian internetera konexioa (etxeen %6,2k behar du eta momentu honetan ez du) edota ordenagailua (%6,1).

Bestetik, etxebizitza erregimenari dagokionez, inkesta erantzun duten herritarren %89k jabetzan du bere etxebizitza eta %11 alokairuan bizi da. Alokairuan bizi den jendearen gehiengoa ez da Euskal Herrian jaiotakoa, eta erdiek alokairuan jarraitu nahi dutela adierazi dute eta beste erdiek etxea jabetzan eskuratu nahiko luketela.


Bizi diren etxebizitzarekin gustura al dauden galdetuta, orokorrean etxearekin oso edo nahiko gustura daudela adierazi du itsasondoarren %91,3k. Auzoa edo kokalekuari dagokionez, %88,7 dago gustura eta %8,0k dio ez dagoela gustura. Eta bukatzeko, alokairu edo hipotekaren prezioarekin %63,3k gustura dagoela esan du, %8,7 ez dago gustura eta gainerako %28,0k ez du erantzun nahi izan.

Hau guztia kontuan hartuta, inkestatuei galdetu zaie ea etxebizitzaz aldatzeko beharra duten, eta Itsasondoko 'familien' ia hamarretik batek (%9,3) erantzun du baietz, aldatzeko beharrean ikusten dutela beren burua.

Zenbat metro karratu ditu etxebizitzak, gutxi gorabehera?

| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
|----------------------|------------|--------------|
| 50 m2 baino gutxiago | 1 | 0,7 |
| 50-75 m2 artean | 40 | 26,7 |
| 76-100 m2 artean | 71 | 47,3 |
| 100 m2 baino gehiago | 30 | 20,0 |
| ED / EE | 8 | 5,3 |
| Guztira | 150 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Gaur egun, etxebizitza horren jabeak zarete, errentan zaudete ala beste egoeraren batean?

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|----------------------------|------------|---------------|
| Jabetzan | 127 | 87,6 |
| Errentan | 16 | 11,0 |
| Emandakoa (herentzian adb) | 2 | 1,4 |
| Guztira | 145 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



(Errentan bizi direnei) Errentan bizitzen jarraitu nahi duzu(e) edo ahal bazenute, nahiagoko zenuten etxebizitza erostea?

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|-------------------|------------|---------------|
| Errentan jarraitu | 8 | 50,0 |
| Erosi | 8 | 50,0 |
| Guztira | 16 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Ondorengo aspektuen arabera, bizi zareten etxebizitzarekin gustura al zaudete?

| | Prezioa (alokairua edo hipoteka) % | Kokalekua edo auzoa % | Etxea bera (tamaina, egoera orokorra...) % |
|-------------------|------------------------------------|-----------------------|--|
| Oso gustura | 26,0 | 50,0 | 59,3 |
| Nahiko gustura | 37,3 | 38,7 | 32,0 |
| Ez oso gustura | 6,0 | 5,3 | 6,7 |
| Batere gustura ez | 2,7 | 2,7 | 0,0 |
| ED / EE | 28,0 | 3,3 | 2,0 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Etxean dituzten azpiegiturak


| | Badute | Ez dute eta ez dute behar | Ez dute baina behar dute |
|---|--------|---------------------------|--------------------------|
| Sukaldea (gasa edo elektrizitatearekin) | 99,3 | 0,7 | 0,0 |
| Telefono mugikorra | 99,3 | 0,7 | 0,0 |
| Balkoia edo terraza | 92,6 | 6,1 | 1,4 |
| Auto propioa | 89,9 | 8,1 | 2,0 |
| Interneta | 76,0 | 17,8 | 6,2 |
| Telefono finkoa | 74,3 | 25,7 | 0,0 |
| Ordenagailua | 70,7 | 23,1 | 6,1 |
| Dutxa egokitua | 50,3 | 46,2 | 3,4 |
| Komun egokitua | 47,9 | 49,3 | 2,7 |
| Igogailua | 29,9 | 47,9 | 22,2 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020

**Etxebizitzaz aldatzeko beharrik ba al duzue?**

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---------|------------|---------------|
| Bai | 14 | 9,3 |
| Ez | 126 | 84,0 |
| ED / EE | 10 | 6,7 |
| Guztira | 150 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



3.8. BEREN ETXEBIZITZA ALDATU NAHI DUTENEN EZAUGARRIAK

Esan bezala, Itsasondoko 'familien' ia hamarretik batak adierazi du etxebizitzaz aldatzeko beharra duela. Horietatik gehiengoa (%42,9) seme-alaba bat edo gehiago dituzten bikoteak dira, beste %21,4 guraso bakarra seme-alabekin eta beste hainbeste seme-alabarik ez duten bikoteak. Bukatzeko, kide bakarreko etxeak %14,3 dira.


Etxebizitza aldatzeko beharra dutenen lautik hiruk (%75,0) jabetzan duten gaur egun bizi diren etxea, eta gainerako %25,0k errentan. Aldaketarako premiaren arrazoi ez galdetuta, badira prezioa edota etxearen kokalekuarekin gustura ez daudenak, baina, zalantzarik gabe, etxebizitzaren beraren ezaugarriak dira aldaketa nahi izatearen arrazoi nagusia. Zehazki, igogailu falta eta horrekin lotutako mugikortasun arazoak dira gehiengoak aipatu dituenak.

Atal honekin bukatzeko, inkestatuei galdetu zaie ea udalerriz mugitzeko prest leudeken beren beharretara egokitzen den etxebizitza bat eskuratzeko. Aldaketa beharra duten 'familien' gehiengoak (%61,5) adierazi du Itsasondo utzi eta beste herri batera joateko prest leudekela eta horien barruan %15,4 Goierrikan kanpo ere joango lirateke.

Zein familia-harreman duzue bizi zareten etxebizitzan?

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|------------|---------------|
| Kide bakarreko etxea | 2 | 14,3 |
| Guraso bakarra seme-alabekin (monoparental) | 3 | 21,4 |
| Bikotea seme-alabarik gabe (ez dituzue edo ez dira etxean bizi) | 3 | 21,4 |
| Bikotea seme-alabekin (bat edo gehiago) | 6 | 42,9 |
| Guztira | 14 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Gaur egun, etxebizitza horren jabeak zarete, errentan zaudete ala beste egoeraren batean?

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|----------|------------|---------------|
| Jabetzan | 9 | 75,0 |
| Errentan | 3 | 25,0 |
| Guztira | 12 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Ondorengo aspektuen arabera, bizi zaren etxebizitzarekin gustura al zaudete?

| | Prezioa (alokairua edo hipoteka) % | Kokalekua edo auzoa % | Etxea bera (tamaina, egoera orokorra...) % |
|-------------------|---------------------------------------|--------------------------|---|
| Oso gustura | 7,1 | 7,1 | 21,4 |
| Nahiko gustura | 42,9 | 57,1 | 28,6 |
| Ez oso gustura | 7,1 | 28,6 | 50,0 |
| Batere gustura ez | 7,1 | 7,1 | 0,0 |
| ED / EE | 35,7 | 0,0 | 0,0 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Aldaketa beharraren balizko arrazoi hauetatik zein da GARRANTZITSUENA zuen kasuan?

| | Lehen arrazoa | Bigarren arrazoa |
|---|---------------|------------------|
| Oztopo arkitektonikoak, koxkak, igogailu falta, mugikortasun arazoak | 5 | 6 |
| Oraingo etxebizitzaren prezio altuegia | 1 | - |
| Tamaina ez egokia (etxebizitza txiki gelditu zait) | 1 | - |
| Bizitzeko baldintza txarrak | 1 | 2 |
| Kokapen desegokia (auzoa ez da gustokoa, ez dauka zerbitzurik, urrundua, konfliktiboa...) | 1 | - |
| Etxebizitza jabetzan izan nahi dut | 1 | 1 |
| Nire senide edota lagunetatik urrun nagoelako | - | 1 |
| Beste bat | 4 | 1 |
| Guztira | 14 | 11 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Beste arrazoi bat


| | Maiztasuna |
|--|------------|
| Anbiente gehiago, jende gehiago, trenbidetik gertu egotea. Baina orokorrean zerbitzu onak daude | 1 |
| Es una casa del Ayuntamiento y tenemos que irnos de ella, porque nos lo han dicho del Ayuntamiento | 1 |
| Hobetu behar dira baldintzak, hezetasuna eta zaharra dago | 1 |
| Jardina izatea | 1 |
| Alokairuan gaude eta erreformak egin nahi ditugu, etxea zaharra delako. Jabeak ez du nahi. Ahal bada, beste alokairu batera mugitu nahiko genuke | 1 |
| Guztira | 5 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020

Zuen beharretara egokitzen den etxebizitza lortzeko, Itsasondo ez den beste herri batera joateko prest egongo zinatekete?

| | Itsasondotik kanpora % | Goierritik kanpora % | Gipuzkoatik kanpora % |
|----------------------|------------------------|----------------------|-----------------------|
| Bai, baietz uste dut | 61,5 | 15,4 | 0,0 |
| Ez, ez dut uste | 38,5 | 84,6 | 100,0 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



3.9. BAKARRIK BIZI DIRENEN EGOERA SOZIO-AFEKTIBO-EKONOMIKOA

Etxean bakarrik bizi direnentzat galdera propio batzuk egin ziren inkestan, pertsona hauen egoera nolakoa den ezagutzeko. Itsasondoko herritarren artean 25 pertsonak erantzun zuten bakarrik bizi direla (etxebizitzan %16,5). Hauen artean ia hamarretik zazpi (%68,0) gizonezkoak dira eta %32 emakumezkoak. Adin tarteari dagokionez, bakarrik bizi direnen multzo handiena 65 urtetik gorako herritarren artean dago (%42,3) eta ondoren 30 eta 49 urte bitartekoaren artean (%30,8).

Jaiolekuari dagokionez, bakarrik bizi diren itsasondoarren ia %100 Itsasondon bertan edo Gipuzkoako beste udalerriren batean jaiotakoa da. Eta bukatzeko, lan egoerari dagokionez, erdiak jubilatuta daude (%50,0) eta beste ia gehienak lanean (%42,3).

Bakarrik bizi diren herritarren inguru soziala aztertuta, esan daitekeena da kasik herritar guztiek oso harreman estua dutela egunerokoan bere inguruarekin. Gehien bat familiako kideekin, baina lagunekin edo bizilagunekin ere kontaktu maiztasun handia dutela adierazi dute gehienek. Bestetik, harreman hauen 'kalitateari' dagokionean, gehienek bere inguruarekin harreman ona dutela azaldu dute.

Egoera ekonomikoari dagokionez, lehenago nabarmendu den bezala, azpimarratzekoa da bakarrik bizi diren herritarren artean gehiago direla arazo ekonomikoak dituztenak, herritarren batezbestekoarekin alderatzen bada. Bakarrik bizi diren herritarren %15,4k dio bere egoera ekonomikoa nahiko edo oso txarra dela (udalerriko batezbestekoa %10,6an dago) eta hilabete bukaerara iristeko zailtasunak dituztela adierazi du %30,8k (%20,7 da media).


Bukatzeko, bakarrik bizi diren herritarren gehiengoak (%69,2) adierazi du arazo fisikoren bat dela medio, norbaiten laguntza beharko balu, baduela lagunduko duen norbait inguruan. %7,7k esan du ez duela zainduko lukeen inor eta %23,1ek ez daki edo ez du erantzun nahi izan.

3.9.1. EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Sexua

| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
|-------------|------------|--------------|
| Emakumezkoa | 8 | 32,0 |
| Gizonezkoa | 17 | 68,0 |
| Guztira | 25 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Adin tartea

| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
|-------------------|------------|--------------|
| 18-34 urte artean | 1 | 3,8 |
| 35-49 urte artean | 8 | 30,8 |
| 50-64 urte artean | 6 | 23,1 |
| 65 urtetik gora | 11 | 42,3 |
| Guztira | 26 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Jatorria

| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
|------------------------------|------------|--------------|
| Itsasondo | 12 | 46,2 |
| Gipuzkoako beste lekuren bat | 12 | 46,2 |
| Espainiako Estatua | 1 | 3,8 |
| Estatutik kanpo | 1 | 3,8 |
| Guztira | 26 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Lan egoera


| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
|------------------------------------|------------|--------------|
| Lan ordainduan (jardun osoan) | 10 | 38,5 |
| Lan ordainduan (jardun murriztuan) | 1 | 3,8 |
| Langabezian | 1 | 3,8 |
| Jubilatu / pentsionista | 13 | 50,0 |
| Beste bat | 1 | 3,8 |
| Guztira | 26 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020

**Euskara gaitasuna**

| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
|-------------------------------------|------------|--------------|
| Euskaraz ulertu eta hitz egiten dut | 18 | 69,2 |
| Euskara ulertu bai, hitz egin ez | 5 | 19,2 |
| Ez dut euskara ulertzen | 3 | 11,5 |
| Guztira | 26 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020




3.9.2. SOZIALIZAZIOA ETA HARREMANAK BESTE PERTSONEKIN

Harremantzeko maiztasuna

| | Familia (%) | Lagunak (%) | Bizilagunak (%) | Osasun Zentroa (%) | Gizarte Zerbitzuak (%) |
|-----------------------|-------------|-------------|-----------------|--------------------|------------------------|
| Ia egunero | 50,0 | 28,0 | 48,0 | 8,0 | 4,0 |
| Astean pare bat aldiz | 15,4 | 24,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Astean behin | 19,2 | 16,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Noizbehinka | 7,7 | 24,0 | 20,0 | 64,0 | 12,0 |
| Ia inoiz ez | 7,7 | 8,0 | 32,0 | 28,0 | 84,0 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Harremanaren balorazioa

| | Familia (%) | Lagunak (%) | Bizilagunak (%) | Osasun Zentroa (%) | Gizarte Zerbitzuak (%) |
|------------------|-------------|-------------|-----------------|--------------------|------------------------|
| Oso ona | 57,7 | 53,8 | 30,8 | 24,0 | 17,6 |
| Ona | 34,6 | 38,5 | 46,2 | 60,0 | 29,4 |
| Ez ona ez txarra | 3,8 | 7,7 | 11,5 | 4,0 | 35,3 |
| Txarra | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 4,0 | 0,0 |
| Oso txarra | 3,8 | 0,0 | 11,5 | 8,0 | 17,6 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020




3.9.3. EGOERA EKONOMIKOA

Nola definituko zenuke zure egoera ekonomikoa?

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|------------|------------|---------------|
| Oso ona | 2 | 7,7 |
| Ona | 17 | 65,4 |
| Txarra | 4 | 15,4 |
| Oso txarra | 0 | 0,0 |
| ED / EE | 3 | 11,5 |
| Guztira | 26 | 100,0 |


Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Diru-sarrerak kontuan hartuta, hilabete bukaerara nola iristen zarela esango zenuke?

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|----------------------|------------|---------------|
| Oso erraz | 3 | 11,5 |
| Nahiko erraz | 11 | 42,3 |
| Nahiko zailtasunekin | 8 | 30,8 |
| Zailtasun handiekin | 0 | 0,0 |
| ED / EE | 4 | 15,4 |
| Guztira | 26 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020




3.9.4. EGOERA FISIKOA

Etorkizunean, zure osasun egoera edo egoera fisikoagatik, norbaitengatik zaindua izan beharko bazenu...

| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
|---|------------|--------------|
| Badut nork zainduko nauen beti | 11 | 42,3 |
| Denboraldi batez zainduko nauen norbait badut | 3 | 11,5 |
| Tarteka zainduko nauen norbait badut | 4 | 15,4 |
| Ez dut inor zaindu ahal nauenik | 2 | 7,7 |
| ED / EE | 6 | 23,1 |
| Guztira | 26 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



3.10. 18 ETA 35 URTE ARTEKO GAZTEEN INGURUKO ATALA

Inkesta bete duten 151 etxebizitzetatik 23tan 18-35 urteko gazteak bizi direla esan digute, gurasoekin edo familiarekin bizi direnak. Guztira 27 gazteren erantzunak jaso dira ikerketan. Gazte horietatik %55,5 gizonezkoak dira eta %44,5 emakumezkoak. Adinari dagokionez, gazteen hiru laurdenak (%74) 18 eta 25 urte bitarte ditu eta beste %26,0k 26 eta 35 urte bitartean. Eta beren gaur egungo etxebizitza utzi eta bere kabuz bizitzera joateko asmoa / nahia dutenak %38,5 izan dira. Kasu kopuru txikia dela eta (independizatu nahian dauden kasuak 9 dira) taula eta grafikorik ez egitea erabaki da.

Emantzipatu nahi eta oraingoz ezin izan duten gazteen artean, egoera horren arrazoi nagusi bezala gehiengoak azpimarratzen du alokairu edo salmentan dauden etxebizitzak garestiegiak direla (%66,6) eta ondoren, beren lan egoera ezegonkorak ez diela uzten emantzipatzen (%20,0). Bestetik, beren kabuz bizitzera joandakoan zenbat pertsona joango liratekeen galdetuta, heren batek (%33,3) bakarrik joango liratekeela erantzun du, %44,4k bikotekidearekin, %11,1ek lagun talde batekin eta gainerako %11,1ak oraindik ez du erabaki.

Aipagarria da beren beharretarako egokituko litzatekeen etxebizitza eskuratzeko, inkestatu guztiak prest egongo liratekeela Itsasondo utzi eta beste udalerrri batera joateko. Horretaz gain, gazteen bi heren (%66,6) prest egongo lirateke Goierritik kanpo joateko ere. Bestetik, etxebizitza erregimenari dagokionez, inkestatuen ia erdiak (%44,5) alokairuko etxe baten bila dabilta, %37,5ek jabetzan nahiko lukete eta %22,0k ez du zehaztu nahi izan.

3.11. UDALAREN ZERBITZUAK: EZAUGUTZA, ERABILERA ETA BALORAZIOA

Itsasondoko Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen ezagutzari dagokionez, bereziki hiru zerbitzu dira herritarren artean oso ezagunak: Lurdes janari denda (%97,4k ezagutzen du), Kaxintane taberna (%96,7) eta mediku eta erizain kontsulta (%94,0). Ondoren aurkitzen dira liburutegia (%78,1), gizarte langilearen zerbitzua (%64,2) eta Ludoteka (%62,3). Esan beharra dago, hiru zerbitzu hauen ezagutza baxuagoa dela herrigunetik kanpo kokatutako zonaldeetan eta etorkinen artean. Gutxien ezagutzen diren zerbitzuak Gaztelekua (%53,0) eta Harrera eguna (%41,1) dira.

Zerbitzuen erabilerari buruz galdetuta, ikusten da gehien ezagutzen diren zerbitzuak erabiltzen direla gehien; mediku eta erizainaren kontsulta herritarren %85,9k erabili du, baita Lurdes janari denda ere. Kaxintane taberna zertxobait gutxiagok (%76,5). Gainerako zerbitzuen erabilera askoz baxuagoa da, esaterako, liburutegia herritarren laurdenak erabili du (%26,2), Ludoteka %18,1ek, gizarte langilearen zerbitzua %16,8k, Gaztelekua %7,4k eta Harrera eguna %4,7k.

Herrigunetik kanpo bizi diren herritarrek mediku eta erizainaren kontsulta eta gizarte langilearen zerbitzua gehiago erabili dutela ikusten da. Aldiz, gainerako zerbitzu guztien erabilera baxuagoa egiten dute.

Bukatzeko, zerbitzuen erabilerari buruzko balorazioa egitea eskatu zaie herritarrei, 0 eta 10 arteko eskala batean. Orokorrean, zerbitzu guztiek oso balorazio positiboa jaso dute, guztiek 8,8 eta 7,2 arteko batezbesteko puntuazioa. Balorazio onena jaso duten zerbitzuak Lurdes janari denda (8,8), mediku eta erizain zerbitzua (8,4) eta liburutegia izan dira (8,3). Balorazio apalena jaso dutenak aldiz, Gaztelekua (7,2) eta Kaxintane taberna (7,3).


Gizarte Zerbitzuak edota Osasun Zerbitzuak erabiltzeko zailtasunik duten galdetuta, herritarren ia hamarretik batek (%9,3) baiezkoa erantzun du. Aipatu diren zailtasunen artean, mediku zerbitzuaren ordutegi murrizta azpimarratu dute zenbaitek, lan ordutegiarekin ezinezkoa baitzaie medikutara joateko zita hartzea.

3.11.1. UDALAREN HAINBAT ZERBITZUREN EZAGUTZA

Itsasondok herritarrei bideratutako hainbat zerbitzu ditu. Gizarte langilearen zerbitzua. Ezagutzen duzu?

| | Ezagutza | Erabilera | Balorazioa (0-10) (erabili dutenek) |
|-------------------------------|----------|-----------|-------------------------------------|
| Lurdes janari denda | 97,4 | 85,9 | 8,8 |
| Kaxintane taberna | 96,7 | 76,5 | 7,3 |
| Mediku eta erizain kontsulta | 94,0 | 85,9 | 8,4 |
| Liburutegia | 78,1 | 26,2 | 8,3 |
| Gizarte langilearen zerbitzua | 64,2 | 16,8 | 8,1 |
| Ludoteka | 62,3 | 18,1 | 7,7 |
| Gaztelekua | 53,0 | 7,4 | 7,2 |
| Harrera eguna | 41,1 | 4,7 | 7,9 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020




3.11.2. UDALAREN ZERBITZU HORIEK ERABILTZERAKOAN DAUDEN ARAZOAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Aurreko galderetan aipatutako Gizarte Zerbitzu eta Osasun Zerbitzuak erabiltzean zailtasunen bat duzu?

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---------|------------|---------------|
| Bai | 14 | 9,3 |
| Ez | 137 | 90,7 |
| Guztira | 151 | 100,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



Zein zailtasun?

| | Maiztasuna |
|---|------------|
| Beraiekin hitzordua hartzeko zailtasunak ditugu | 1 |
| El horario: para los que trabajamos.... salir, perder una hora de trabajo... como en otros muchos servicios | 1 |
| El idioma, hablo rumano | 1 |
| Langileentzat ordutegi zabalagoa | 1 |
| Mediku txanda eskatu behar duan bakoitzeko telefonoa hartzen didanari azalpen gehiegi eman behar dizkiodala iruditzen zait eta askotan ez dut txanadarik fisikoki lortzen, telefonoz soilik | 1 |
| Mediku zerebitzuaz: traba asko hitzordua eskatzeko, lista de esperak, deituko dizut esan eta gero deitu ez | 1 |
| Medikua arratsalde ez egotea | 1 |
| No aguanto mucho de pie | 1 |
| Por horario | 1 |
| Salud. Tuve accidente de coche el 2013 y me muevo con dificultad | 1 |
| Telefono zuzena edukitzea. Beti Ordiziako anbulategira deitu behar da. | 1 |
| Tengo y quiero cambiar el medico de Ordizia a aquí al lado de casa | 1 |
| Guztira | 12 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020

3.12. HERRITARREN PARTE HARTZEA: UDAL BATZORDEAK ETA HERRIKO EKIMENKA

Udalak martxan dituen batzorde irekien inguruan ere galdetu zaie itsasondorrei. Aipatu zaizkien hiru zerbitzuek antzerako ezagutza ehunekoak jaso dute; Herri Bizitza batzordea herritarren %44,4k ezagutzen du, Ongizate batzordea %39,1ek eta Hirigintza eta Lurralde Antolaketa batzordea %38,4k. Kasu honetan ere, esan beharra dago batzordeak ezagunagoak direla herrigunean bizi diren herritarren artean, beste auzuneetan bizi direnen artean baino.

Bestetik, batzordeetan parte hartzeari buruz galdetuta, ehunekoek asko egiten dute behera. Herri Bizitza da herritarren parte hartze handiena jaso duena (%7,9) eta ondoren datoz Ongizate batzordea (%4,6) eta Hirigintza eta Lurralde Antolaketa batzordea (%2,0).

Eta bukatzeko, herrian bertan antolatzen diren hainbat ekimenen inguruan galdetu zaie itsasondorrei. Bereziki ezagutzen diren ekimenak herriko jaiak (%86,1ak ezagutzen ditu) eta San Joan sua dira (%84,1). Ondoren, %60ko ezagutzatik gora dute garagardo festak, jubilatuen egunak, San Silvestreak eta kantu afariak. Eta bukatzeko Gau Beltza herritarren %47,7k ezagutzen du.


Ekimen hauetan egiten den parte hartzea ere ordena oso antzekoan jaso da. Herriko jaietan herritarren erdia baino gehiagok parte hartzen du (%53,0) eta San Joan suan %43,0k. Parte hartze txikiena duten ekimenak San Silvestrea (%13,2) eta jubilatuen eguna dira (%15,9).

3.12.1. UDAL BATZORDEEN EZAGUTZA, PARTE HARTZEA ETA BALORAZIOA

Udalak martxan dituen batzordeak

| | Ezagutza (%) | Parte hartzea (%) |
|--|--------------|-------------------|
| Herri Bizitza batzordea | 44,4 | 7,9 |
| Ongizate batzordea | 39,1 | 4,6 |
| Hirigintza eta Lurralde Antolaketa batzordea | 38,4 | 2,0 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020



3.12.2. HERRIKO EKIMENEN EZAGUTZA ETA PARTE HARTZEA

Herrian antolatzen diren ekimenak

| | Ezagutza (%) | Parte hartzea (%) |
|------------------|--------------|-------------------|
| Herriko jaiak | 86,1 | 53,0 |
| San Juan sua | 84,1 | 43,0 |
| Garagardo festa | 76,2 | 42,4 |
| Jubilatuen eguna | 69,5 | 15,9 |
| Kantu afaria | 60,9 | 23,2 |
| San Silvestre | 60,9 | 13,2 |
| Gau beltza | 47,7 | 17,2 |

Iturria: Aztiker, Itsasondoko herritarren errealitate sozioekonomikoa eta iritziak COVID-19aren testuinguruan, 2020

